

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 1235

138/2022 *EBAZPENA*, otsailaren 22koa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Felicidad Santana Rubio andrea Zerbitzu Orokorretako Azpitaldearen arduradun izendatu den (Ikuztegia), izendapen aske bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko ESlan.

1345/2021 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko ESlan Zerbitzu Orokorretako Azpitaldearen Arduradun lanpostu bat (Ikuztegia) izendapen aske bidez betetzeko deialdia argitaratu zen.

Batzordeak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Felicidad Santana Rubio andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da hura izendatzea, izendapen aske bidez, Zerbitzu Orokorretako Azpitaldearen Arduradun (Ikuztegia), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko ESlan.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Felicidad Santana Rubio andrea izendatzea, Osakidetzako Donostialdeko ESiko Zerbitzu Orokorretako Azpitaldearen Arduradun (Ikuztegia).

Bigarrena.– Izendapen honek 2022ko martxoaren 1ean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Izendapenak egin dituen organoak edozein unetan kargugabetu ditzake, bere eskumen-ahalez, izendapen askeko sistemaren bidez izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak edo mugiarazteak zera eragingo du: langilea beste postu funtzional batera lekualdatuko da, baina, edonola ere, interesdunak duen kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko die. Hain zuzen, antzeko ezaugarriak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik bera zegoen antolakuntza eta lurraldetasun-baldintza berberetan. Atxikipen horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.– Interesdunari eta Donostialdeko ESleri Ebazpen honen berri ematea.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2022ko otsailaren 22a.

Donostialdeko ESiko zuzendari-gerentea.

EB (53/2019 Ebazpena, urtarrilaren 24koa).

Langileen zuzendaria,  
ESTHER LITAGO SOLA.